

Txikitik eragiten dabiltzanak elkar ezagutzen Arrasaten

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

OÑATIN irailaren 20an ospatuko den Argia Egunaren atarian, Arrasateko EHEren eta ARGIAren elkarlanaren bidez, Argia Egun Txikia ospatu da irailaren 11n. Hausnartarako, jokorako eta jairako aukera izan da Arrasaten. Besteak beste, herrigintzako hainbat taldek bizi duten egoera konpartitzeko baliatu dute Argia Egun Txikia.

Eguna elkartearen arteko solasaldiarekin hasi zuten. *Herrigintzaz eta antolaketaz: nola daramatzagu gure etxeak?* gaia zuten berbagai. Herri mugimenduari dagokionez, herri oso aktiboa da Arrasate, eta hori horrela, besteen artean, elkarte hauetako kideek hartu zuten parte solasaldian: AED, Txatxilipurdi, Arrasateko Gaztetxea, AEK, Emun, Arrasateko EHE eta ARGIA. Bakoitzak bere etxean gauzak zelan zeuden azaldu zuten, eta gaur egun zer-nolako erronkak dituzten ere kontatu zuten. Elkartrukatze saioa aberatsa izan zen: Elkarrengandik ikasi, hausnartu, eta hemendik aurrera elkarrekin bestelako saio edo ekitaldiak antolatzeko abiapuntua izan daiteke.

Solasaldiaren ostean, Arrasate inguruan tradizioa duen Doke jokoa jolastu zuten, eta bertoko produktuekin egindako pintxo-jana izan



Argia Egun Txikiaren aurkezpenean, ondorengo solasaldian parte hartu zuten euskalgintzako hainbat eragile: AED, Txatxilipurdi, Arrasateko Gaztetxea, AEK, Emun eta Arrasateko EHE.

zuten bazkaritarako. Arratsalde-iluntzean Imanol Epeldek Etxepare Rap kontzertua eskaini zuen, hip-hop-a eta euskal literaturaren historia uztartuz. Arrasateko lau gazte ere igo ziren Jai Zaleko oholtzara, bertsoak jotzera. Eguna amaitzeko, DJ Elvisek doinu dantzagarriak ekarri zituen Argia Egun Txikira.

ARGIAko kideak Arrasatera proiektuaren berri ematera joan zirenean sortu zen elkarlanerako aukera. “ARGIAren filosofia gure antzekoa da zentzu batean, herrigintzan lan egiten duten eragileekin lan egiteko gogoia konpartitzen dugu”, azaldu du EHEko Mikel Makazagak. ■

AXIER LOPEZ



Oñati, dabilen herria

www.oñati.eus



OÑATIKO UDALA

Oñatiko Udala, Foruen Enparantza, 1- Tel: 943 78 04 11